

ELA y LAB, Sindicatos mayoritarios en el sector de las ikastolas y centros de iniciativa social (Red Concertada), exigimos al Gobierno Vasco un nuevo Acuerdo de Financiación que posibilite mejoras reales para el conjunto de los trabajadores y trabajadoras de dicha red educativa. Únicamente en este escenario podremos abordar, en la Negociación Colectiva, cuestiones tan relevantes como la reducción de la jornada lectiva y el tema salarial.

Es evidente que el marco sobre el que se basa el actual modelo de financiación de los centros concertados es claramente insuficiente para afrontar las necesidades presentes y futuras de los trabajadores y trabajadoras de la red concertada. Ya lo decíamos en el año 2005: “El Marco del 92 está agotado”.

ELA cuenta con el 61% de la representatividad en el sector de Iniciativa Social y LAB con el 60% en el de las Ikastolas. En lo que respecta a las ikastolas ELA y LAB representan el 100% de los delegados y delegadas, en el sector de centros de iniciativa social ELA y LAB suman el 66,13 %. Y en la globalidad de los centros concertados el 83%

Los elementos centrales para un nuevo Acuerdo quedan recogidos en el “Acuerdo de Dedicación” suscrito el año 2005 por las dos centrales sindicales y las Patronales del sector de las Ikastolas (PARTAIDE y EIB).

El “Acuerdo de dedicación” recalca, desde nuestro punto de vista, dos aspectos que obligatoriamente debe recoger un nuevo Acuerdo de Financiación. Por una parte la equiparación retributiva, tanto para el personal docente como para el personal de Administración y Servicios, respecto al personal de los centros de titularidad del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Y, por otra, la que hace referencia a la reducción de la jornada lectiva. En consecuencia, además de las funciones y actividades comprendidas actualmente en el módulo, han de incluirse las de tutoría, orientación, refuerzos lingüísticos...

Parece evidente que existe un borrador de propuesta -documento aproximativo- que las patronales (KRISTAU ESKOLA y PARTAIDE) han hecho llegar al Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Incluso, si tenemos en cuenta lo publicado en prensa, podríamos pensar que el Acuerdo es inminente.

Nada más lejos de la realidad. Tenemos la convicción de que, a pesar de ser necesario, el Acuerdo todavía está muy lejano. La Administración Educativa no ha tenido hasta el momento, ni con ELA ni con LAB, ningún tipo de contacto con el objetivo de negociar un posible acuerdo. Requisito que consideramos imprescindible.

Es por lo que queremos trasladar al conjunto de trabajadores y trabajadoras que ha llegado el momento de movilizarnos. Es la conclusión a la que hemos llegado tanto ELA como LAB. En consecuencia hacemos público el calendario de movilizaciones programado tanto para los Centros de Iniciativa Social como para las ikastolas.

- **Jornadas Informativas**
 - Gasteiz 24 de abril.**
 - Donostia 8 de mayo.**
 - Bilbo 15 de mayo.**
- **Paros en los centros, la tarde del 20 de mayo.**
- **Unido a este paro manifestación de los trabajadores y las trabajadoras de la Red Concertada en Bilbo (18:00)**



ELA eta LABek, Ikastoletako sektorean eta Ekimen Sozialeko Ikastetxeetako (Itunpeko Sarean) sindikatu nagusi garenok, aipatu sareko langileriaren lan baldintzen hobetzea ahalbidetuko lukeen Finantzazio Akordio berri bat exijitzen diogu Eusko Jaurlaritzari. Aldaketa hori eman ostean soilik ekin ahal izango diogu, Negoziazio Kolektiboaren bidetik, hain garrantzitsu diren lanaldi lektiboa eta lansarien gaiak aztertzeari.

Begi-bistakoa da egungo markoa, itunpeko zentroetako finantziazio eredua oinarri hartzen duela, ez dela inondik ere nahikoa itunpeko sareko langileriaren gaurko eta etorkizuneko beharrei aurre egiteko. 2005ean ere hala adierazi genuen: "92ko markoa agortuta dago".

ELAk, Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako sektorean %61eko ordezkaritza du, eta LABek, %60koa Ikastoletan. Ikastolei gagozkiola, ELA eta LABen artean %100 ordezkaritza osatzen dute, eta Ekimen Sozialeko Ikastetxetan, %66,13. Itunpeko ikastetxe guztiak kontutan hartuta %83ko da ordezkaritza.

ELarentzat eta LABentzat akordio berri baten oinarritzko ildoak 2005ean sindikatuok eta Ikastolen sektoreko Patronalek (Partaide eta EIB) sinatutako "Dedikazio Akordioa" delakoan daude bilduta.

Gure ikuspegitik, "Dedikazio Akordioak" finantziazio akordio berri batek nahitaez jaso beharko lituzkeen bi alde azpimarratzen ditu. Alde batetik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko langileriarekiko lansarien berdintzea, (bai irakasleriarentzat eta baita zerbitzu eta administrazioko langileriarentzat ere), eta bestetik lanaldi lektiboaren murrizketari dagokiona. Ondorioz, gaur egun kontzertuetako moduluan sartzen diren funtzio eta jardueraz gain tutoretza, orientazioa, indartze linguistikoa,... bezalakoak ere barneratu beharko lirakeke.

Badirudi badabilela proposamen zirriborro bat, dokumentu bat, patronalek (KRISTAU ESKOLA eta PARTAIDE) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari helarazi diotena. Are gehiago, azken egunotan prentsan argitaratu diren berriak kontutan hartuz gero, pentsa genezake Akordioa lortzear legokeela.

Baina hori horrela izatetik oso urrun gaude gure ustetan. Ziur gaude Akordioa lortzeko asko falta dela oraindik, nahiz eta ezinbestekotzat jo. Hezkuntza Administrazioak akordioa negoziatzeko helburuarekin ez du inolako harremanik izan orain arte ez ELAekin eta ezta LABekin ere. Eta hori ezinbestekotzat jotzen dugun baldintza da.

Honegatik guztiagatik sektoreko langileria adierazi nahi diogu mobilizatzeko garaia iritsia zaigula dagoeneko. Ondorio honetara heldu gara bai ELA, eta baita LAB ere. Honenbestez, Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetarako eta Ikastoletarako antolatu ditugun mobilizazioen egutegia publiko egin nahi dugu.

- **Ihardunaldi Informatiboak:**
Gasteizen apirilaren 24an
Donostian maiatzaren 8an
Bilbon maiatzaren 15ean
- **Arratsaldeko lanuztea maiatzaren 20an.**
- **Lanuzte honi lotuta Itunpeko Sareko langileriaren manifestazioa Bilbon, 18.00tan.**